

# Musika

*Ainhoa GARAIKOETXEA DE ANDRÉS*

EUSKAL HERRIKO MUSIKA  
TRESNAK EZAGUTZEKO  
KONTZERTU DIDAKTIKO BATEN  
PROPOSAMENA

**TFG/GBL 2013**

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

*Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua /*  
**Grado en Maestro de Educación Infantil**



Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**Euskal Herriko musika tresnak ezagutzeko  
kontzertu didaktiko baten proposamena**

Ainhoa GARAIKOETXEA DE ANDRÉS

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA  
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Ainhoa GARAIKOETXEA DE ANDRES

**Izenburua / Título**

Euskal Herriko musika tresnak ezagutzeko Kontzertu Didaktiko baten proposamena

**Gradu / Grado**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Auritz AURTENETXE ZALBIDEA

**Saila / Departamento**

Psikologia eta pedagogia/ Psicología y pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2012/2013

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberria /Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

---

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak alor guztietan lagundu dit. Lan hau egiterakoan modulu honetan izandako ikasgaietan ikasitakoa kontutan hartu dut.

Modulu honek oinarri bat eman dit hemen planteatutako proiektua aurrera atera ahal izateko. Oinarrizko gaitasun batzuk garatzen lagundu dit, komunikatzekoa, ezagutza orokorrak, irakaskuntza estrategiak, metodologiak eta teknologia berrien aplikazioa.

Hizkuntzan asko lagundu didate hizkuntzen inguruan izandako ikasgaiak, hauetan idazketa landu dugulako eta idazketan hobetzeko teknikak erakutsi dizkigutelako, hala nola, hiztegia, gramatika edota esaldiak modu sintaktiko egokiz idazten. Hizkuntza ezberdinak ikasi ditut unibertsitatean (euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa) eta hori ere lan honen laburpenetan islatzen da.

Didaktika eta diziplinako moduluak alde praktikoan lagundu dit gehien bat. Modulu honetan ikasitakoak, *Kontzertu Didaktikoa* ikusleei nola zuzenduko diedan prestatzeko baliabideak eman dizkit.

Kontzertua planifikatzerako orduan (gidoia, materiala, ariketak, ...), irakasgai hauetan ikasitako errekursoak erabili ditut.

Gainera, Didaktikako irakasgai bakoitzean, hizkuntza, matematikak eta gainerako arloetan, haurren hezkuntzarako metodoak ikusi ditugu, kontzertuan erabilgarriak izan zaizkidanak.

Practicumaren modulua proiektu hau irudikatzeko eta errealitate batean kokatzeko baliagarria egin zait. Praktiketean egon naizenean, modu errealean haurren gaitasunak, gustuak, hizkuntzarekiko ulermena eta sozializatzeko gaitasuna ikusi ahal izan ditut.

Egindako praktikei esker badakit haur hezkuntzako hurrek zein gaitasun erreal dituzten eta zeintzuk ez, eta ikuskizun baten aurrean zer nolako jarrera duten. Hau oso baliagarria izan zait ikuskizuna prestatzerako orduan, orain badakidalako nori zuzentzen diodan *Kontzertu Didaktikoa* eta zer nolako arrera egingo dioten kontzertuari. Esperientzia hau kontzertu didaktikoa prestatzerako orduan baliagarria izan zait, adineko hurrekin egin daitezkeen jarduerak ezagutzen ditudalako.

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

Aukerazko modulua musikaren ingurukoa izan zen. Modulu honek eman dizkit baliabide gehienak proiektu hau posible egiteko. Izandako ikasgai gehienetan musikaren hezkuntzako metodoen ingurukoak ziren eta hauek izan dira niretzat baliagarrienak.

Ikasgai batzuetan musikaren arloan curriculumarekin lan egiten ikasi genuen eta honek, *Kontzertu Didaktikoaren* helburuetan aukeratu behar nituen helburuak hobe klasifikatzeko balio izan dit.

Bestetik, metodo mota ezberdinak erakutsi zizkiguten. Metodo hauek Marko teorikoan eta *Kontzertu Didaktikoaren* metodologian islatzen dira. Ikasgai batean Kontzertu Didaktiko bat prestatu genuen irakaslearekin. Kontzertu didaktiko hori eskoletara eramanez, eta esperientzia hori Kontzertu Didaktiko hau prestatzeko eredu izan zait.

Errepertorio aproposa aukeratzeko baldintzak baliagarriak izan zaizkit errepertorioa aukeratzeko. Kasu honetan, musika tresnen arabera errepertorioa aukeratzeko ikasgai horretan ikasitakoa kontuan hartu dut.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratua behar dutela. Horregatik, Hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira "Conclusiones" eta "Introducción" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.





## Laburpena

Hurrengo proiektuaren bidez eremu musikaleko hainbat eduki irakasteko daukagun metodo berritzailea eraman nahi da geletara. XX. mendean hezkuntza musikalean gertatu zen iraultzari esker, eremu honetako metodologia berri asko zabaldu dira.

Horregatik, jarduera berritzaile bat aplikatu nahian, proiektu honek *Kontzertu Didaktiko* bat proposatzen du, zeina euskal kulturaren hainbat balio eta eduki musikal transmititu nahi dituen, alboka, trikitixa, nafar gaita panderoa eta txalaparta bezalako musika tresnekin, ikasleengana harik eta gehien hurbilduz, ikuskizun ludiko, eta era berean, hezitzaile baten bidez.

*Hitz gakoak:* Kontzertu didaktikoa; metodo berritzailea; euskal musika tresnak; haur hezkuntza

## Resumen

Con el siguiente proyecto se quiere llevar a las aulas un método de enseñanza innovador con el que se enseñen varios contenidos educativos del ámbito musical. Gracias a la revolución que se dio en el siglo XX en la educación musical, se han distribuido muchas metodologías nuevas de este ámbito.

Por ello, con ánimo de aplicar una actividad nueva, hemos diseñado un *Concierto Didáctico* con el que queremos transmitir ciertos valores y contenidos musicales de la cultura vasca, por medio de instrumentos como la alboka, trikitixa, pandero, gaita navarra y txalaparta, acercándonos lo máximo posible a los alumnos, por medio de un espectáculo lúdico a la vez que educativo.

*Palabras clave:* Concierto Didáctico; métodos innovadores, instrumentos musicales del País Vasco; educación infantil

## Abstract

With this project we want to bring into the classes a new and innovating method of teaching that will teach several educational contents from the musical field. From a

traditional and a passive model where students do nothing but listen, we add the importance of the music subject evolving to a more valued area; although it has not reach the level of the core subjects.

So, with this project we have carried out a *Didactic Concert* with the aim of transmitting certain values or principles from the Basque culture, with the help of some music instruments like alboka, trikitixa, pandero, nafar gaita and txalaparta; getting in touch with the students as much as possible giving them a playful spectacle and, at the same time, an educative one.

*Keywords:* Didactic Concert; musical instruments from Basque Country; new methods; infant education

## Aurkibidea

<b>SARRERA</b>	
<b>1. INTRODUCCIÓN</b>	<b>2</b>
<b>2. AURREKARIAK</b>	<b>3</b>
<b>3. MARKO TEORIKOA</b>	<b>7</b>
<b>3.1. Kontzertu Didaktikoen marko teorikoa</b>	<b>7</b>
<b>3.1.1. Lehenengo aldia(1930-40) Metodo ondorioztatzaileak</b>	<b>8</b>
<b>3.1.2. Bigarren aldia(1940-1950) Metodo aktiboak</b>	<b>8</b>
<b>3.1.3. Hirugarren aldia (1950-1960) Metodo instrumentalak</b>	<b>9</b>
<b>3.1.4. Laugarren aldia(1970-1980) Sormena lantzeko metodoak</b>	<b>10</b>
<b>3.1.5. Bosgarren aldia (1980-1990) Trantsizioa</b>	<b>10</b>
<b>3.1.6. Seigarren aldia (1990) Eredu pedagogiko berriak</b>	<b>10</b>
<b>3.2. Euskal musika tresnen marko teorikoa</b>	<b>11</b>
<b>3.2.1. Nafarroako Gaita</b>	<b>12</b>
<b>3.2.2. Alboka</b>	<b>12</b>
<b>3.2.3. Trikitixa</b>	<b>13</b>
<b>3.2.4. Panderoa</b>	<b>13</b>
<b>3.2.5. Txalaparta</b>	<b>14</b>
<b>3.3. Hausnarketa</b>	<b>14</b>
<b>4. MATERIALA ETA METODOAK</b>	<b>15</b>
<b>4.1. Kontzertu didaktikoen metodologia</b>	<b>16</b>
<b>5. PROIEKTUA</b>	<b>20</b>
<b>5.1. Proiektuaren aurkezpena</b>	<b>20</b>
<b>5.2. Kontzertuaren helburuak</b>	<b>22</b>
<b>5.3. Deskribapena</b>	<b>26</b>
<b>5.4. kontzertu aurretiko eta ondorengo jarduerak</b>	<b>28</b>
<b>5.5. Ikasleen zein irakasleen ebaluazioa</b>	<b>29</b>
<b>6. Emaitzak</b>	<b>30</b>
<b>CONCLUSIONES</b>	
<b>ERREFERENZIAK</b>	
<b>ERANSKINA</b>	



## INTRODUCCIÓN

Este proyecto se plantea con los nuevos métodos que se proponen en la educación musical; *Los Conciertos Didácticos*. Vistos los beneficios que los *Conciertos Didácticos* aportan a los alumnos, es un recurso que aporta resultados positivos en la educación musical. Por tanto, he creado este proyecto con el que utilizando los *Conciertos Didácticos* de medio, se ofrece la posibilidad de conocer los instrumentos musicales de la cultura Vasca.

Con este proyecto se quiere brindar a los niños la posibilidad de conocerlos y recibir cierta información sobre los instrumentos musicales de su entorno, para potenciar en ellos un interés hacia la música y la cultura Vasca.

A la hora de elegir los instrumentos que se presentarán en el concierto, se han seleccionado instrumentos de diferentes familias, para así enriquecer el contenido de lo presentado; instrumentos de viento (trikitixa, alboka y gaita navarra) e instrumentos de percusión (pandero y txalaparta).

Al realizar el proyecto se han desarrollado varios puntos, los cuales son imprescindibles a la hora de preparar un Concierto Didáctico, y recogen la información, los pasos y el material necesario para la realización del mismo.

## 1. HELBURUAK

Proiektu honekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- Haurrengan musikarekiko interesa piztea. Nafarroan daukagun hezkuntza eredua dela eta, askotan antzeman dugu haurrak ez daudela musikarekin motibatuta, astean behin izan ohi dutelako musikako arloa eta erabiltzen diren metodologiak ez dutelako haiengan motibaziorik pizten. Proiektu honekin erakutsi nahi diegu musika ez dela kontu aspergarria, baizik eta musikaz ere gozatu daitekeela eta ez dela astean behin ematen den arlo bat, haratago doan alor bat baizik.
- Hurrek euren kulturaren inguruan gehiago ikastea, hau gertutik biziz. Gaur egun, mundu globalizatu batean gaude, eta lekuko kulturek beren nolakotasunak galtzen ari dira. Globalizazioak hizkuntza zein kultura gutxietsientzat mehatxu bat suposatu du, horregatik Euskal Herriko kultura sustatu nahian euskal musika tresnak ezagutzeko proiektua sortu dugu.
- Euskal Herriko instrumentu ezberdinak ezagutzea. Euskal Herrian ditugun musika tresna guztietatik batzuk ezagutzeko aukera izanen dute proiektu honen bidez, eta hauen arteko berdintasun eta ezberdintasunak antzemango dituzte. Instrumentu hauen ezagutza Euskal Herriko musika hobe ulertzeko bide bat bilakatzen da, Euskal musikarekin harremanak estutzeko baliagarria izango zaielarik.
- Musika eta tresna klasikoez gain, beste musika eta tresna motak ikas daitezkeela erakutsi. Ikusi daitekeen moduan, ikastetxe gehienetan musika klasikoa eta orkestretako instrumentuak irakasten dira. Bestetik, uste da musika mota guztiak landu behar direla, aniztasunaren barne. Horregatik, kontzertu didaktikoek eskaintzen duten aukera ikusita, musika estilo ezberdinak ezagutzera emateko erabiliko da.
- Kontzertu Didaktikoaren jatorria eta bere erabilpenak erakutsi. Komenigarria da *Kontzertu Didaktikoak* nondik datozen jakitea, ikastetxe guztietan edo gehienetan ez bada, behin edo behin erabiltzen direlako eta musikarekin

bezala, beste arlo batzuk lantzeko erabilgarria delako. Era berean, *Kontzertu Didaktikoek* izan duten prozesua ezagutzea ezinbestekoa bilakatzen da proposamen hau aurrera ateratzeko.

- Musikaren hezkuntzari garrantzia gehitzea. Musikaren hezkuntzari ez zaio eskoletan beharrezko garrantzirik eman eta batez ere orain, bizitzen ari garen garaiotan, musikaren hezkuntza baztertzen ari dira, diru-laguntzak kenduz eta orduak murriztuz, batez ere. Musikaren hezkuntzaren inguruko proiektuak egiten baditugu, arlo honi merezi duen errespetua eta nagusitasuna ematen ariko gara.

## 2. AURREKARIAK

Hezkuntzak XX. mendean bizi zuen iraultza dela eta hainbat aldaketa bizi izan ziren hezkuntza musikalaren sisteman. *Eskola Berriak*, metodo aktiboak eta hainbat pedagogoren metodologia berriek aldaketa sakonak egin zituzten hezkuntza sisteman eta horrek musikaren hezkuntzan ere bere ondorioak eragin zituen.

Beraz, XX. mendean hezkuntza arloan eman ziren aldaketarik nabarienenak eta horrek XXI. mendeko hezkuntza guztiz baldintzatu zuen, XXI.mendea berrikuntzaz beteriko mendea bilakatuz. XXI.mendean, aurretik jasotako aldaketak bizirik diraute oraindik eta musikaren hezkuntzan ere aldaketa hauek dihardute. Hezkuntza berri honetan eredu transmisiboa baztertu eta eredu parte-hartzailea bultzatzen da, non metodo eraikitzaileak erabiltzen diren (Adame, 2010, 1-3). Honen eredu dira Kontzertu Didaktikoak, zeinak XXI. mendean hasten diren hezkuntza musikalaren zati izaten. Hala ere genero honen aurrekariak XX. mendean aurki daitezke, Sergéi Prokófieven *Pedro eta Otsoa* lanarekin sortutako ipuin musikalean hain zuzen ere.

*Pedro eta otsoa* konposizio sinfonikoa 1936. urtean idatzia izan zen, Moskuko haur antzerki zentralak Sergéi Prokófievi egin zion enkarguaren ondorioz. Argi dago ez zela musikariaren ideia izan ezta kontzertu didaktiko baten planteamendua ere, baina ikusleei ipuin musikalaren bidez musikaren inguruko eduki batzuk helaraztea zuen helburu, musika tresna ezberdinen ezagutza eta gertutasuna agertzea alegia. Bertan

pertsonaien motiboak azaltzen dira obraren hasieran aurkeztuta, eta ondoren, ipuinak aurrera egin ahala pertsonaien arabera motibo horiek agertzen doaz. Kontzertu honek pertsonaia eta musika tresnen arteko loturarekin jolasten du, pertsonaia ezberdinen arabera musika tresnak irudikatuz, eta ondorioz publikoari pertsonaia konkretuak musika tresna zehatzekin eta hauen tinbreekin duten erlazioa aurkeztuz. (Machado, 2008, 104) Garaian, emanaldiaren emaitza positiboa izan ez bazen ere, gerora eredutzat erabili izan dute munduko orkestrarik esanguratsuenak.

Kontzertu didaktikoen kontzepzioa hobetu ulertu dezagun, V. Newmanek proposatutako definizioa eta kontzertuen inguruko deskribapena luzatzea aproposa bilakatzen da, "un concierto es didáctico cuando cumple objetivos pedagógicos definidos y se enmarca en un proceso educativo determinado. Algunas de sus principales características son: estar dirigido a un público determinado, cuyo perfil se conoce previamente; tener un programa seleccionado según los objetivos pedagógicos planteados y su adecuación al público; y la inclusión de algún tipo de presentación o guía, que facilita el acercamiento del público a la música con diferentes tipos de intervenciones. Los principales objetivos de un concierto didáctico pueden ser sintetizados en: facilitar el acercamiento a la música en vivo, desarrollar la audición comprensiva y el juicio crítico del público, y fomentar la necesidad de asistir regularmente a conciertos. La preparación y organización de un concierto didáctico conllevan el conocimiento de las características del público, el espacio físico, las obras del programa, los intérpretes, el programa de mano y las actividades preparatorias realizadas por los asistentes." (Neuman V., 2004, 6) Kontzertu didaktiko batean kontuan hartu beharreko puntuak laburki azaltzen ditu hemen Neumanek. Puntu hauek erabilgarriak izanen zaizkigu kontzertu didaktikoa planifikatzerakoan.

Liana Hentschk-en iritziz, ez da erraza *Kontzertu Didaktikoa* definitzea, oso kontzeptu zabala delako eta *Kontzertu Didaktiko* mota bakoitzean ezaugarri ezberdinak daudelako. Hala ere, honako azalpena egiten du genero musikal honen inguruan, "es primeramente una oportunidad para que los músicos interactúen con el público, de forma que éste profundice en su relación personal con la música, a través del conocimiento de cómo percibimos música, sus funciones personales, sociales y culturales. Es una oportunidad de que los oyentes conozcan cómo una obra llega hasta Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez



nosotros como producto, desde los procesos creativos, influencias estilísticas y culturales, notación, interpretación y formas de difusión. Para los educadores es una herramienta eficaz para poner a los alumnos delante de la creación, interpretación, apreciación, contextualización histórico-cultural.” (Hentschke, 2009, 42)

Hortaz, *Kontzertu Didaktikoa*, ezagutzaren, oinarrizko nozio musikalen eta hezkuntzaren planteamenduen igorpena eta asimilazioa eraginkor bilakatzen dituen bidea da. *Kontzertu Didaktikoen* erabilera gehien bat haurren interesak eta beharrak lotzeko modu bat da. Kontzertu didaktikoetan ikastea helburu da baina ondo pasatzea oinarrizko gauza bat da ere. *Pedro eta Otsoa* antzezlanean, adibidez, haurrentzako ipuina eta musika lotzen da, bien arteko jokoan dago gakoa.

Kontzertu didaktiko bakoitzak baditu bere helburu zehatzak, zeinak kontzertu batetik bestera aldakorrak izan daitezkeen, baina badira ere helburu orokor batzuk, zeinak kontzertu didaktiko guztien zati diren. Hona hemen kontzertu didaktiko ororen helburu orokorrak:

- Ikaskuntza inguru bat edota dimentsio errealeko testuinguru bat sortzen duen ikaskuntza/irakaskuntza praktikoaren bidezko estrategia bat erabiltzea.
- Hezkuntza erritmikoa eta dantza hezkuntza musikalean sustatzea. Antolakuntzaren, didaktikaren, balioen eta jarreraren aurrean haurrengan jarrera erreflexiboa eta iritzi kritikoa bermatzea.
- Ikasleen esfortzua, materia eta profesioarekin harremanetan dauden hiru ezagutzak (jarrerazkoa, prozedurazkoa eta kontzeptuala) barneratzera bideratzen duen ekintza didaktikoa planteatzea, zeina hezigarria izanda ere ebaluatzailea ere baden.
- Ikuspegi hezigarri baten barruan ikasleak bere sormen gaitasuna eta sentsibiltate musikala erakusteko esparrua eskaintzea. (Garcia, 2005, 95)

Beraz, esan daiteke, *Kontzertu Didaktikoa* hezkuntza eremura zuzenduta dagoen emanaldi bat dela, non obren zatiak eta moldaketak zein komentario didaktikoak agertzen duten eta lortu nahi diren helburuen arabera eraikita dauden. Kontzertu mota hauek ez dira kontzertu arruntak bezala, non entzuleek paper pasiboa duten, baizik eta musikaren bidez edo musika helburu izanik, jakintza batzuk lortzea du lege. Kontzertu hauek 3 urtetik aurrerako haurrei eskainitako kontzertuak dira, zeinak

eskolan edo antzokietan egin daitezkeen eta eskola orduaren barne antzeztuko diren. (Roldan, 2010, 22)

Aipatu bezala, proiektu honetan kontzertu didaktikoa musikaz gozatzeko aukera izateaz gain, euskal herriko musika tresnak ezagutzeko bidea da. Euskal musika tresnez, eta zeharka kulturaz ari garenean kontutuan izan behar da honek XX.mendean jasandako krisialdia, gerra osteko urteak eta 1960. hamarkadan bizi izandako egoera politikoa medio. Hortaz, 1960. hamarraldian euskal kultura eta musika tresnen berpizkunde garaia izan zela esan daiteke, bereziki *ez dok amairu* taldeak egindako lanaren bidez.

*Ez dok amairu* 1965, urtean sortu zen. Bertan musikari eta artista ezberdinek parte hartu zuten, Mikel Laboa, Joxean Artze, Jexux Artze, Nestor Basterretxea, Jose Angel Irigarai, Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Jorge Oteizak nagusiki. Ideia Katalunian sortutako Nova Cançó mugimendutik bazetorren ere, laster ekarri zuen M. Laboak Euskal Herrira. Mugimendu honek euskal kanta berria sustatu nahian sortu zen, azkenean euskal Kultura berpiztuz.

Mugimendu kultural hartan parte hartu zutenek, 1970. urtean *Baga biga higa ... sentikaria* izeneko espektakulua sortu zuten, bertako helburuak taldea sortu zeneko berdinak izanik. Horrela "taldearen lehendabiziko helburuarekin jarraituz, kantutegietan bilduak zeuden eta ezagutzen ez ziren kanta zaharrak taldekideek ikasiko zituzten ondoren jendeari erakusteko. Bigarren helburua, garaiko edo beste olerkarien testuak musikatzea izango zen, hirugarrena, musika esperimental edota musikagintzan bide berriak irekitzea zen eta laugarren eta azkeneko helburua, gal zorian zeuden musika tresnak berreskuratzea eta plazaratzea litzake, horrela *Sentikariari* hasiera txistua eta danbolinaren soinuak emango zioten, dantzaren lagungarri, txalapartaren soinua olerki eta kanten artean tartekaturik entzungo zen eta musu gitarraren zein toberaren doinu eta erritmoek kanta ezberdinak lagunduko zituzten" (Aurtenetxe, 2010, 147) .

Ondorioz, *Ez dok amairu* mugimenduari esker, euskal musikak berpizkunde handia jasan zuen, euskal musika garaikideari ateak irekiz. Euskal musika berria bultzatu zuen mugimendu honek eta nazionalismo sentimendua zabaldu zuen. Euskal musikarekiko

kontzientzia areagotu zen Euskal Herri mailan eta euskal musikako kontzertuak areagotzen hasi ziren. Mugimendu honekin batera, euskal musika tresnak ere indarra hartuz joan ziren, hauen zabalkundera iritsi arte. Hala ere, badirudi Euskal Herriko instrumentuek egun ez dutela hezkuntzan nahi bezain presentzia izan:

“Garai batean, soinu tresna eta bere musika inguruagatik onartua zenean, ikasteko demanda haundiagoa ematen zen, eta ondorioz, musiko konpetenteagoak sortzen ziren. Baina lehenago esan dugun bezala, gaur egungo egoera beste bat da. Gaur egun, soinu-tresnak eta beren musikak guztiz ezezagunak dira bere inguruan ere, eta traba guztiei aurka eginez berau irautarazten saiatzen diren sinisdun batzuren lanagatik jarraitzen dute kasu batzu bizirik.” (Beltran, 1995, 358)

Juan Mari Beltranen hitzen bidez, antzematen da, XX. mendeko berpizkunde kulturala eta gero, egun oraindik ez direla horren ezagunak, horregatik, proiektu honekin Euskal Herriko musika tresnak ezagutzera eman nahi ditut. Horrela kontzertu didaktiko honen bidez Juan Mari Beltranek faltan botatzen duen beharrari erreparatuko diogu beti ere haur hezkuntzako beharrei egokituz:

“Ezagutarazi behar dira: nolakoak diren (eraketa eta funtzionamendua), nolako den bere hotsa, bere musika, zertarako, nola eta non joa izan den, nor eta nola,... Laburtuz, osotasunean ezagutarazi behar da soinu-tresna hauei dagokien guztia” (Beltran, 1995, 358).

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. Kontzertu Didaktikoen marko teorikoa**

Proiektua nondik datorren hobe ulertzeko, denboran atzera jo behar da azken urteotan eman diren aldaketa pedagogikoak aztertzeko. Horretarako XX. mendean emandako bilakaeraren laburpen bat ikusiko dugu eta ondoren hainbat alderaketa eta ondorio aterako ditugu kontzertu didaktikoen gaia dela eta.

XX. mendea aurkikuntza eta sorkuntzaren mendea izan zen arlo gehienetan, eta erritmo bizi batean eman ziren aldaketa hauek. Musikaren ikuspuntutik, “metodo handien mendea” dei geniezaioke mende honi edota “musikaren hezkuntzaren

berpizkundearen mendea”.

Musikak mende honetan eduki zuen garapenaren analisi bat egingo dut, kontzertu didaktikoen zergatia eta sorrera hobeto ulertu dadin. Horretarako XX. mendea sei epe nagusitan banatuko dut, aldi bakoitzean musika hezkuntzan izandako aldaketak aztertuz, horretarako Violeta Hemsy de Gainzak (2004) egindako lana kontutan hartuko dugularik. Hemsy de Gainza, V. (2004). La educación musical en el siglo XX. *Revista musical chilena*, 74-81, 58 (201).

### 3.1.1. Lehenengo aldia(1930-40) Metodo ondorioztatzaileak

Mendearen ia hasieratik hainbat figura pedagogikok beharrezkoa ikusi zuten hezkuntza musikalean aldaketak sartzea. XX. Mendearen hasierako hamarkadetan jadanik mugimendu pedagogiko berria sartzen hasia zen eskoletan *Eskola Berria* edo *Eskola aktiboa* deituriko mugimenduaren ondorioz, alegia. *Eskola berriak* hezkuntzan benetako iraultza sortu zuen mende honetan, bereziki ikasleen nortasunean eta hauen beharrak asetzen oinarritu zelako. Metodo aktiboen artean , Pestalozzi, Decroly, Froebel, Dalton eta Montessorirenak aipa daitezke, zeintzuk Europa eta Ipar Amerikan zabaltzen joan ziren, hezkuntza musikala baldintzatuz.

*Eskola berriaren* mugimenduan hezkuntza prozesuaren egitura ez zen beldurrean eta zigorrean oinarritzen, ezta saria lortzearen nahian ere, ikaskuntzaren edukien edo arloarenganako interes sakonean baizik; hurrek eskolako lana, berez, helburu desiragarri bat bezala ikusi behar zuten; hezkuntza funtzio intelektualen eta moralen garapenean jarri zen, memorizatzearen helburuak alde batera utzita; eskola aktiboa izan zen, ikasleriaren aktibitatea martxan jartzeaz arduratu zena; irakaslearen paper nagusia ikaslearen interesak estimulatzea eta haren interes intelektualak, afektiboak eta moralak piztea izan zen; hezkuntza pertsonalizatua zen, bakoitzaren nahiak asetzen zituena.

### 3.1.2. Bigarren aldia(1940-1950) Metodo aktiboak

Aldi honetan ezinbesteko bilakatu zen Jaques Dalcroce-k (1865-1950) egindako lana eta proposamena, bera izan baitzen *Euritmia*ren sortzailea. *Euritmia* arte berri bat zen eta hitzaren pasarte bat edo musika pieza bat gorputzaren bidez komunikatzen

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

zetzan. Denborarekin arlo pedagogikoa aberastu egin zen, Edgar Willemsen (1890-1978, Belgika-Suitza) eta Maurice Martenoten (1898-1980, Frantzia) ekarpenei esker.

E. Willems musikaren eta gizakiaren arteko harreman psikologikoetan oinarritu zen. Erritmoa, melodia eta harmonia hiru alderdi hauekin lotu zituen: fisiologikoa, afektiboa eta mentala. Bere pedagogiaren oinarria bizitzarekiko begirunea zentzu guztietan zetzan, haurrekiko eta musikarekiko sentitzen zuen maitasuna eta gizakia erlazionatzen duten printzipioak ziren.

Maurice Martenoten metodoa berriz, haurrek gizaki primitiboaren erreakzio psikosentsorial eta motor berak dituztela baieztatu zuen, beraz, erritmoaren zentzumen instintiboa bere egoera garbienean lantzea egokiena zela azpimarratu zuen, musikaren neurri eta melodiaren nozioak baztertuz.

Bere metodoaren helbururik azpimarragarrienak musika sakonki maitaraztea; garapen musikala hezkuntzaren zerbitzura jartzea; izatearen garapena eskertzea; energiak bidertzeko baliabideak ematea; ezagutza teorikoak modu aktiboan (bizian) transmititzea, joko musikalen bidez; kalitatearekiko sentsibilizazioa lantzea; erlaxazioa eta arnasketa egokia egitea ziren.

E, Willems-ek eta M. Martenotek musikaren hezkuntzaren kontzeptuaren hausnarketan bat egin zuten J. Dalcrozekin . Bitartean EEBBtan John Deweyren(1859-1952) ideiak plazaratzen hasi ziren, gizakion hezkuntza eskubideen aldarrikapena, hezkuntza demokratikoa, alegia. J. Deweyren ideiak James Mursellengan eragina zuten, psikologoa eta Ipar Amerikako hezitzaile musikala. Bere lanaren ondorioz, pedagogia musikalaren indartzea eman zen Estatu Batuetan.

### *3.1.3. Hirugarren aldia (1950-1960) Metodo instrumentalak*

Mende honetan goraiatu beharra ziren Carl Orff (1895-1982) alemaniarren, Zoltán Kodály (1882-1967) hungariarren, eta Suzuki (1882-1998) japoniarren lanak. Hiruen proposamenek bat egin zuten musika hezkuntzan musika tresnen metodoak proposatzean, gaur egun erabiltzen diren irakaskuntzako metodoak bilakatu direlarik. Carl Orff musika tresnen erabileran oinarritu zen, Zoltán Kodlay ahotsa eta lan koralak hobesten zituen eta Suzuki biolinaren irakaskuntza birtuosoan oinarritu zen, oso metodo zorrotzekin.

1950 urtetik aurrera Buenos Airesen hezkuntza musikalaren metodo berriak zabaldu ziren. Bitartean, garai honetan, musikako irakasleek jarrera positiboak eta eraikitzaileak azaldu zituzten pedagogo handi hauen aurrean, musikako irakasleen lan tasak gora egin zuen, pedagogo nagusienek haien irakaskuntzak zabaldu zituzten, eta bien bitartean seminarioetara joaten ziren, eta mendebaldean “Orff instrumentazioa” oinarri izanik perkusio taldeak areagotu ziren .

#### *3.1.4. Laugarren aldia(1970-1980) Sormena lantzeko metodoak*

Metodo sortzaileetan irakasleak bere ikasleekin sormenaren ariketa elkarbanatu zuen. Garai honetako musikako pedagogo nagusienak G. Self., B. Dennis, J. Paynter eta M. Schafer ziren. Beraien proposamenen ondorioz ikasleak produkzio musikaletan esku hartzen hasi ziren, ez sortzaile bezala baizik eta erabiltzaile gisa. 1970 eta 1980ko hamarkadetan musika hezkuntzan musika garaikidearen erabilera zen proposamenik aipagarriena. Alemanian Ingalaterran, Frantzia eta Europako ipar herrialdeetan obra didaktikoak idazten ziren eta musikaren irakaskuntzari bideratutako mota guztietako soinuak eta zaratak grabatzen ziren. Espainian ere modu berritzaile batean, gelan musika garaikidea aplikatzera eta erabiltzera bideratu ziren.

#### *3.1.5. Bosgarren aldia (1980-1990) Trantsizioa*

Garai honetan musikaren eta pedagogiaren arazoei esker, hezkuntza musikalaren mugak airean gelditu ziren. Musika garaikidearen joerak gelan jarraitu zuen baina beste joera batzuk sortzen hasi ziren: teknologia musikal eta hezigarrien erabilera, ekologiaren garrantzia, artean mugimendu alternatiboen presentzia, musikoterapia, edota talde teknika ezberdinak.

Eskoletan migrazio kopurua areagotzen hasi zen, globalizazio eta zabaltze garaiaren ondorioz, herrialde askoren gizartearen egitura aldatu egin zen, gizarte kultur anitza bihurtuz. Musika hezkuntzari dagokionez, ikasleei formakuntza zabala eskaintzearen beharra ikusi zen , nortasun propioa galdu gabe, beste musikak eta kulturak integratzea ahalbidetu zuena.

#### *3.1.6. Seigarren aldia (1990) Eredu pedagogiko berriak*

Nahiz eta oraindik hezkuntza musikaleko arazoak zeuden, badirudi garai honetan Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

baretzen hasi zirela. Antzeman zitekeen ekintza hezigarrietan dagoen polarizazioa. Batetik, LOGSErekin batera, hezkuntza musikalak garrantzia hartu zuen hezkuntza munduan eta XX. mendeko metodo baliotsuekin topatu zen. Bestalde, musikaren formakuntza espezializatuaren edo goi mailakoaren maila gaurkoratu gabe jarraitzen zuen.

Hezkuntzan XX.mendean eman zen erreforma garrantzitsuena LOGSE (1990), izan zen. Oinarri konstituzionalen gainean sortutako legea izan zen eta hezkuntza musikalerako aurrerapauso bat suposatu zuen, ordura arte hezkuntza musikala gutxietsia baitzegoen.

Gaur egun, musikako hezitzaileek eredu anitz dituzte euren beharrerako. Europako pedagogia musikalean dantza etniko eta herrikoien eta gorputz joko erritmikoen irakaskuntza dago modan. Badira kasuak non hurrek eta gazteek musika kantu, dantzen, banden, jokoen, eta abarren bidez ikasten dute musika. Irakasle batzuk, bitartean, eredu ekologikoekin, ludikoekin eta teknologikoekin identifikatzen dira, adibidez, Murray Schaferren ikuspuntua.

### **3.2. Euskal musika tresnen marko teorikoa**

Gure kasuan Kodalyren eta Bartoken teoretan sakonduko gara, aberriko musikaren ikaskuntzan zentratu zirelako, eta eredu bezala erabili dezakegulako gure proiektua diseinatzerako orduan.

Kodaly eta Bartoken metodologiaren aldetik erabiliko ditugun puntuak musikaren garrantzia eskolan, analfabetismo musikala ekidin eta aberriko musikari garrantzia ematea dira.

Musikak LOGSE (1990) legearekin garrantzia hartzen duen arren, oraindik ere ez zaio beste ikasgaiei bezain besteko garrantzia ematen. Irakaskuntzan musikak leku txikia dauka eta horren ondorioz hurrengan analfabetismo musikala zerbait arrunta da gure hezkuntza sisteman. Hau ekiditeko Kodalyk eta Bartokek ikasleei kalitatezko musika eta hezkuntza musikala eskaintzea proposatzen dute.

Bestetik, aberriko musikari garrantzia ematea proposatzen dute. Bartokek eta Kodalyk diote lehenbizi aberriko musika irakatsi behar diegula ikasleei eta ondoren

gainontzekoak irakatsi behar zaiela, aberriko musika sustatzeko. Euskal Herrian euskal kanta sustatu nahian *Ez dok amairu* mugimendua sortu zen.

1960ko hamarkadan Euskal Herrian *Ez dok amairu* mugimendua eduki genuen eta honek euskal kanta, bermatzearekin batera, orokorrean euskal kultura sustatu zuen. *Ez dok amairu* mugimenduak kontzertuen bidez zabaldu zuen Euskal Herriko musika eta horrekin batera euskal herriko instrumentuen ezagutzaren zabalkuntza.

Erabiliko ditugun instrumentuen inguruan gehiago jakin dezagun, haien inguruko edukia aztertu dut. Hona hemen musika tresna bakoitzaren informazioa:

### *3.2.1. Nafarroako Gaita*

Aurkeztuko diren musika tresnetatik lehena Nafarroako Gaita da. Erdi arotik datorren instrumentua da, haizezko generokoa eta egurrezkoa da. Nafarroako gaitariak eskolako musikariak dira gehienak eta orain dela 40 urte inguru sortu zen Nafarroako Gaitarien elkarte, gaitaren zabalkundea eta gero.

Gaitaren erabilera dantzarako da normalean, erraldoi eta kilikietako kalejiratan eta euskal dantzetan ere. XIX.mendearen erdialdean kontzertuetarako erabiltzen hasi zen ere, baina XX. mendeko krisiak desagerrarazi zuen .

XX. mendean hasieran beherakada bat eduki zuen eta horren ondorioz zabalkundea murriztu egin zen. XX. mendean erdi-amaieran suspertu egin zen eta gaur egun normalizatuta dago gaitaren erabilera eta kultur inguruari oso lotuta dagoen instrumentu bat bilakatu da.

Gaitariak, gaitak jasandako beherakada ikusi arren, lanean jarraitu dute instrumentu honen berpizkundean eta gaur egun kaletik askotan ikusi datekeen instrumentua da.

Nafarroako Gaita egun ezagunago den instrumentua da, baina oraindik ere Nafarroaz kanpoko leku askoetan ez da horren ezaguna. Instrumentu honen inguruko ezagutza zabaltzeko eta Nafarroako instrumentua delako erabaki dut Kontzertu Didaktikoan sartzea.

### *3.2.2. Alboka*

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez



Alboka Bizkaia eta Gipuzkoa aldean erabili den instrumentua da. Albokak Al-buk termino arabieratik ateratzen du izena. Haizezko instrumentua da eta egurrezkoen familiakoa da. Instrumentu honen berezitasunak, behi adarrez egina dagoela eta bi hodi ezberdin dituela dira.

Nahiz eta Euskal herrian oso ezaguna dugun instrumentua izan, bere jatorria ez da bertakoa. Antzina Europa, Afrika eta Asian jotzen zen instrumentua zen eta ez dakigu zehazki noiz heldu zen Euskal Herrira, baina 1443.urtean jadanik Euskal Herrian aurkitu genezakeela erakusten duten idazkiak aurkitu izan dira.

Instrumentu honen soinua gaitarenaren (kornamusaren) oso antzekoa da eta gaitan bezala, soinua ez da etena. Askotan panderoaren laguntzarekin ibili izan ohi da kalejiretan. Oso ezaguna den albokalari bat Leon Bilbao dugu. Bere hitzetan, gaur egun lehen baino albokadari gutxiago dago.

### *3.2.3. Trikitixa*

Trikitixa XIX. Mende amaieran hasten da hedatzen. Lehenengo aipamen idatzia Urkiolako erromeria batekoa dugu 1889an. Musika tresna hau Europako hegoaldetik, (Errumania, Italia, Frantzia, eta Alpeetatik) zabaldu zen eta bertatik datorrela bere jatorria diote adituek. Egun, Trikitixa Elkarteak Zarautzen kokatuta dago. Trikitixa, haizezko instrumentua da, eta hauspo baten bidez bidaltzen zaio haizea instrumentuari.

Trikitixari “infernuko hauspoa” esaten zioten apaiz katolikoek, jende gaztea elkarrekin lotuta dantzatzera bultzatzen zuelako eta horregatik gaizki ikusia izan den instrumentua da. Elizak, udalak eta gobernuak erromeriak debekatzeko aritzen ziren eta kasuren batean, dantzari eta musikariak atxilotu zituzten ere. Euskal nazionalismoak ez zuen eskusoinua euskal musika tresnatzat hartu gerra osterara arte. Bestetik, akordeoi monotonikoak o akordeoi diatonikoak baino ospe gehiago hartua zeukan jendartean, musikari ikasiak baitziren “soinu handi” joleak.

### *3.2.4. Panderoa*

Panderoa oso ezaguna da Euskal Herrian eta maiz lagundu izan ditu trikitixak eta albokak kalejira eta erromerietan. Perkusiozko instrumentua da eta ardiaren larruz eginda dago. Lehenengo aipamen idatziak Aita Donostiak jasotakoak dira,

XVI.mendean. Euskal herritik kanpo “tambour basque” deitu izan zaio. Panderojole ezaguna dugu Mauricia Aldeiturriaga (1904-1988).

### 3.2.5. Txalaparta

Txalaparta Urumea ibaiaren ondoko Herrietan jo ohi zen, Usurbil, Lasarte, Hernani, Ereñotzu, Urnieta, Astigarraga, Ergobia eta Andoain aldetik. Txalapartaren jotzeak oso harreman handia zeukan sagardo lanarekin. Txalaparta perkusiozko instrumentua da, zeina egurrezko makilekin egurrezko oholak kolpatzean datza.

Sagardo garaian festa eta afariak antolatzen ziren herriotan, eta txalaparta jotzen zenean, soinu horrekin jendea animatu egiten zen. Nolabait deitu egiten zuen tresna honek herriko jendea.

Ezkontzak egoten zirenean ere txalaparta jotzen zen aurreko egunetan eta egunean bertan ere, honela herrikoek bazekiten ezkontza bazegoela eta jaia antolatuta zegoela. Nolabait, esan daiteke, txalapartaren soinuak festa non zegoen adierazten zuela. (Beltran, 1996, 155-158)

## 3.3. Hausnarketa

Gaur egun euskal musika tresnak ez dira ezezagunak jadanik, baina eskoletan bizi den kultur aniztasuna kontutan izanik, ezinbestekoa bilakatzen da ikasleria osoari musika tresna hauek ezagutzera ematea. Horregatik, gure proiektua Euskal herriko musika tresnen ezagutza bermatzeko diseinatu dugu, modu honetan, *Ez dok amairu* mugimenduarekin lortu zen bezala, euskal eskoletan euskal musika eta musika tresnak ezagutzera eman nahi ditugu.

Oso garrantzitsua da, hurrek, Euskal Herriko musikaz eta musika tresnez gehiago jakitea, gaur egun Euskal Herriko musika oso gertu daukagulako. Gainera, kontzertu didaktikoan ageri diren musika tresnak, ez dira bakarrik musika tradizionalan ageri, baizik eta gaur egungo musikan joeretan ere. Hortaz, gure aitzindarian musika tresna horiek zer eskaini diguten ikastea garrantzitsua den arren, gaur egun eskaintzen dituzten alternatiba eta aukera ezberdinak ikastea ere garrantzitsua da. Horrela Oreka TX, Kepa Junkera, Esne beltza, Gatibu, Skatu, eta abar bezalako taldeak ditugu, zeinak aipaturiko musika tresnak erabiltzen dituzten euskal rock, euskal pop musikalararekin Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

nahasiz. Ondorioz, esan daiteke instrumentu hauek ezagutzea haurrentzat baliagarria izango dela musika tresnekiko ezagutza, gertutasuna, interesa eta jakin mina sustatzeko.

Bestetik, musikaren hezkuntzak izan duen bilakaera eta transformazioa, esan daiteke eredu transmitibo batetik, eredu eraikitzaile batera iritsi zirela XX.mendean. Carl Orff, Zoltán Kodaly, Murray Shafer, John Paynter eta antzeko pedagogo musikalei esker, musikaren ikaskuntzak metodo berritzaile asko lortu zituen bere onerako.

Kontzertu didaktikoak, beraz, mende amaieran sortuak izan ziren, hezkuntza eraikitzaile baten barruan. Hauek haurrak musikan inplikatu nahi zituzten eta haurren parte hartzea sustatzen zuten. Horretarako haientzat esanguratsuak izan zitezkeen ideiak eta materialak erabiltzen ziren, ikusleen adinaren arabera egokituz. Kontzertu didaktikoaren metodologiak ikusleak kontzertuaren parte izatea nahi zuen, ikuslea inplikatur emanaldia produktiboagoa bilakatur.

J. Paynterrek eta M. Schaferrek proposatu zituzten metodologiak sormenean eta esperimazioan zeuden oinarrituta. Nabari da, beraz, denbora joan ahala, metodologiak askatasuna irekitasun kutsua hartzen doazela, hezkuntza berri bati hegoak ezarriz. Kontzertu didaktikoek, edukiak erakustez gain, haurren sormena eta iritzi kritikoa garatzea eragiten zuten, horrek euren autonomian positiboki eragiten zuelarik.

Beraz, esan genezake, musikako hezkuntzak ez balu “iraultza pedagogiko” hau izan XX. mendean, baliteke gaur egungo hezkuntza pedagogia atzeratuago gelditzea, eta oraindik, eredu transmisiboen menpe egotea. Guk, horrekin apurtu nahian kontzertu didaktikoa dugu proiektuaren oinarri.

#### **4. MATERIALA ETA METODOAK**

Kontzertu didaktikoa planifikatzerako orduan, erabiliko diren metodoak eta materiala kontuan hartu behar dira, euren artean koordinatuta eta aurretik prestatuta egon behar diren gauzak izan behar direlako. *Kontzertu didaktikoa* bere baliagarritasuna izan dezan, lehenengo proiektua aurkeztu beharko dugu bere osotasunean. Hortaz, ale honetan proiektuaren aurreko eta ondorengo jarduerak aurkeztuko dira, proiektuaren

deskribapena egingo da, eta azkenik ikasle eta irakasleen ebaluazioa proposatuko dugu. Honen inguruan Juan Perez Rodriguezek (2003) azpimarratzen du: “Un concierto didáctico bien fundamentado, lo que hace es poner la música al alcance de todo tipo de públicos, y debe contar en primer lugar con una preparación donde se programen actividades como: sesiones de formación para el profesorado, la elaboración de una pieza con participación del público, o la elaboración de un material curricular para su trabajo en el aula.” (Perez, 2003, 3).

#### **4.1. Kontzertu didaktikoen metodologia**

*Kontzertu didaktikoa* zer den hobe ulertzeko, hainbat adituek emandako definizioak aztertuko ditugu lehenbizi. Neumanek dio; kontzertu didaktikoa musika ekartzeko modurik hoberena dela, musika zuzenean bereziki, haur eta gazteei, honek helburu eta nolakotasun batzuk dituen bitartean (Neuman, 2004, 17) Hau da, kontzertuak helburu eta eduki batzuk barneratu behar ditu didaktikoa izan dadin. Helburu eta eduki hauek bai kontzertu propioarenak, baita curriculumekoak izan daitezke.

Bestetik dio, “Eskolako testuinguruan egindako *Kontzertu Didaktikoak* curriculumaren jarduera osagarriak bezala programatu eta zabaldu behar dira, bai eskolaz kanpo baita eskola orduetan egiten bada ere, haurraren musikalizazio prozesua osatzeko eta geroan musikaren inguruko jarduerak egiteko estimulu bezala.” (Neuman, 2004, 17) Beraz, aurretik aipatu diren moduan, *Kontzertu Didaktikoa* curriculumaren osagarri bat izan behar da, eskolan bete beharreko helburuen parte bat betetzen duena. Musikaren arloan laguntzeaz gain, beste gaietako edukiak eta helburuak bete daitezke.

Hentschkek dio, azkenaldian azalpen musikal bat duen edozein kontzertu *Kontzertu Didaktikotzat* hartu izan dela, edozer gauza hartu izan dela eta “denak balio” duela. (Hentscke, 2009, 42). Kontzertu Didaktiko batean ikaskuntza bat egon beharra dago ikusleen aldetik, eta honen definizioa egiten du; ikaskuntza jarduera amaitzean bertan irauten duena da, ezagutza hori erabili eta beste egoera batean erabiltzeko gai naizelarik. (Hentscke, 2009, 42)

Ondoren, *Kontzertu Didaktikoen* inguruan pentsatzen duena azaltzen du; Musikariek ikusleekin elkar eraginean aritzeko aukera da, ikusleek musikarekin harremana estutzeko modua delarik, musika nola hautematen dugun, bere funtzio pertsonalak, Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

sozialak eta kulturalak jakinik. Obra musikal bat entzuleraino produktu bezala iristeko aukera bat da, prozesu sorkarieratik, kultura eta estilistikaren influentziatik, notaziotik, interpretaziotik eta zabaltze moduetatik. Ikasleak sorkuntza, interpretazioa, balio eta testuinguru historiko-kulturalaren aurrean jartzeko ezinbesteko baliabidea da hezitzaileentzat. (Hentschke, 2009, 42)

Beraz, *Kontzertu Didaktikoa* ikasteko bide bat dela eta irakasleentzat irakasteko errekurtso on bat dela badakigu. Lehen esan bezala, musika ikusleei zuzenean transmititzeko modua da, haiengana hurbilduz eta musika ez ezik, beste balio eta ezagutzak transmititzeko balio du Kontzertu Didaktikoak.

Ortegak azkenerako uzten du Kontzertu Didaktikoaren esanahia baina Kontzertu Didaktikoa izan behar ez denaren azalpena egiten du, “Kontzertu bat ez da, non musikariek euren abileziak “ikusle ezjakin” batzuei erakusten dieten, modu honetan, ikuskizunak ez du kontuan hartzen nori zuzenduko zaion eta ikusleak gutxietsiko ditu.” (Ortega, 2009, 47) Hau da ematen dituen azalpenetako bat, non argi uzten duen, Kontzertu Didaktikoa ikusleen ezagutza eta interesei moldatu behar den kontzertua dela.

Ortegak Kontzertu Didaktikoa zer izan behar ez den planteatzen du, baina nik berak esandakoa modu positiboan jarriko dut, zer izan behar den ulertu dadin. Kontzertu didaktikoak ez du hurren geroan pentsatu behar, baizik era orainean eta orainaldira bideratu behar da ikuskizuna. Ikuskizun berezia izan behar da, ikusleen beharretara moldatzen dena eta ondo prestatuta egon behar du, bere beharrezko entsegu orduak sarturik. Gainera, testua, musika, eszenografia eta dekorazioaren oreka egon behar da, gehiegikeriak oso nekagarriak direlako. Azkenik, ikuskizun produktiboa behar du izan, haientzat esanguratsua dena eta horretarako obra elaboratuak erabiliko ditugu, lan handia eskatzen duten arren. (Ortega, 2009, 47-48).

Hentschkek, Kontzertu Didaktikoa aurrera atera dadin kontuan hartu beharreko alderdi batzuk proposatzen ditu.

- *Kontzertu Didaktikoa* proiektu handi baten produktua behar du izan. (Hentschke, 2009, 43). Horrek esan nahi du, *Kontzertu Didaktikoa* zerbait irakasteko bide bat dela eta ez helburu bat berez.

- Ikusleengan petsatu behar da, nori zuzenduko diogun, alegia. Adinaren arabera musika modu ezberdinetan prozesatzen dela kontuan hartu behar da. (Hentschke, 2009, 43). Adinaz gain, beste faktore batzuk kontutan hartu beharko dira ere, testuinguru historiko, geografiko eta kulturala adibidez.
- Momentuan adineko haurren gustu musikalak aztertu behar dira (Hentschke, 2009, 43). Haurren beharretara moldatzeko, haien gustuko eta inguruko gauzetatik hasi behar da. Ikusleen arreta lortzeko haien interesetatik abiatuz eraiki beharko da kontzertua.
- Kontzertua baino lehenagoko materiala prestatu: Landuko dugunaren inguruko liburuak, foiletoak eta testuinguru, kultural historiko eta geografikoa (Hentschke, 2009, 43).
- Kontzertuaren planifikazioa: Kontzertua diseinatu behar da. Saiatuko gara musikaren kalitatea mantentzen. Fase honetan ere ikuskizuna prestatuko da (eszenak, sarrerak, interbentzioak, ...). (Hentschke, 2009, 43-44). Kontzertua ondo planifikatuta egoteak, kontzertuaren arrakasta ekar dezake, ziurtasuna antzemango baita antzezpenean eta interbentzioak hobeto aterako direlako.
- Ebaluazioa: Ebaluaziorik gabe gure nahi hezitzailean zer dagoen ezin dugu jakin eta hurrengo etaparako zer prestatuko dugun ezta ere. Ebaluazio tresna egokien bidez, hezkuntza komunitatean edukitako inpaktua neurtuko dugu, ea guraso eta haurrak kontzertuetara itzultzen diren, CDak erosten dituzten, etxean musika gehiago entzuten duten, besteak beste (Hentschke, 2009, 44).
- Proiektuaren arrakasta ziurtatzeko, talde lanean arituko gara. (Hentschke, 2009, 44). Talde lana beharrezkoa da, kontzertuaren planifikazioa ondo egonik talde osoak lan egiten ez badu alferrik izango delako. Denen interesak eta ekarpenak aberatsak izango dira eta guztion konpromisoa beharko da.

Ortegak ere bere ekarpenak egiten ditu Kontzertu Didaktiko batek hartu behar dituen neurriak zehazteko. Garcia (2005) eta Neumanen (2004) helburuak ezberdinak diren arren, haien artean bateragarriak dira, horregatik bi aditu hauen helburuak aipatzea interesgarria da.

- Gidoi baten planteaketa, protokoloa ondo garatuta izanen duena eta elementu guztiei zentzua emango diena (eszenografia, argiak, jantziak, musikariak, ...).

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

(Ortega, 2009, 49). Beharrezkoa izanen da antolakuntza on bat kontzertua aurrera ateratzeko eta gidoiak hori ahalbidetuko du.

- Musika interpretatzean eta antzeztean talde mailan kalitatea zainduko da. (Ortega, 2009, 49) Kalitatezko ikuskizuna aurkeztu behar dugu, gure antzezlanak ziurtasuna izan dezan. Hau egindako interbentzioetan, inprobisazioetan eta ikuskizunaren dinamismoan nabarituko da.
- Aurkezpen batek (narratzailea, voz en off), hasieran edo ez, oztopatu baino, kontzertuari arintasuna eta koherentzia emango dio. (Ortega, 2009, 49). Hasieran edo tarteka azalpenak egotea baliagarria izan daiteke, beti ere, kontzertuari lotura, azalpen edo arintasuna emateko bada eta astunak ez badira.
- Aurretiko eta ondorengo jarduerak egon beharko dira, kontzertua jarduera baztertua izan ez dadin. Horretarako irakasleen inplikazioa ezinbestekoa izanen da. (Ortega, 2009, 49). Kontzertu Didaktikoarekin transmitituko ditugun ezagutzak baliagarriak izan daitezen, aurre eta ondorengo ariketak proposatzen dira, non kontzertuaren eduki horiek ere landuko diren.
- Kontzertu Didaktikoaren diseinuaren barruan jarduera aktiboa dago, beraz ikusleen parte hartzea sustatuko da. (Ortega, 2009, 50). Interbentzioen bidez aurkezleak ikusleei parte hartzeko aukera luzatuko die, honela kontzertuaren edukiak esanguratsuago bihurtuz.
- Ikuskizunaren iraupena ordu bat edo ordu eta erdikoa izan daiteke. (Ortega, 2009, 50). Iraupena zehazteko taldearen ezaugarriak hartuko ditugu kontuan, eta adinaren arabera mantendu dezaketen atentzioari erreparatuko diogu.

Neumanek ere bere proposamena egiten du Kontzertu Didaktikoen egiturari begira. Ortegak eta Hentschkek egiten dituzten ekarpenekin alderatuz, bat egiten dute gauza askoetan, horregatik, ezberdinak edo aipagarriak deritzodan puntuak aipatuko ditut soilik.

- Ikusleen ezaugarriak kontuan hartzea kontzertu Didaktikoa planteatzerako orduan. Arituko garen ikusle zein zentroarekin aurretiko kontaktua edukitzea komenigarria da. (Neuman, 2004, 24). Honela haien interesak ezagutu eta kontzertua hauen beharretara egokitu dezakegu.

- Ikuskizuna egingo den tokia ezagutzea. (Neuman, 2004, 24). Antzeztuko dugun tokia ezagutuz gero, ziurtasun gehiago izanen dugu eta gure kontzertua espazio horretan nola bideratuko dugun jakinen dugu.
- Musikarien eta ikusleen artean distantzia txikia egotea. Distantzia txikia egonik hurrekin kontatu gehiago izan dezakete musikariek eta hurrek musikarien gertutasuna asko eskertzen dute. (Neuman, 2004, 24)
- Kontzertuaren iraupena lehen hezkuntzako 2.zikloa baino txikiagoak diren haurrentzat bada, ez da komeni 45 minutu baino luzeagoa egitea. (Neuman, 2004, 24)

Neuman, Ortega eta Hentschkeken proposamenak kontuan hartuta, kontzertu didaktikoaren proposamen zehatza egingo dut. Horretarako bakoitzetik komeni zaidana hartuz joango naiz.

## 5. PROIEKTUA

### 5.1. Proiektuaren aurkezpena

Proiektu hau haur hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei zuzendua dagoen *Kontzertu Didaktiko*an datza, non helbururik sendoena Euskal Herriko musika tresnen ezagupena den. Hasieratik kontzertu hau entretenigarria, hezitzailea eta parte hartzailea izatea bilatu dut, honela kontzertuaren arrakasta lortu ahal izango baitugu. *Kontzertu Didaktiko* hau eskoletan antzeztuko da, antzerki baten laguntzaz eta horretarako materiala, beharrezko gidoia, espazioa, edota dekorazioa prestatu beharko dugu.

Hau ondo planifikatzeko eta Kontzertu Didaktikoa porrota izan ez dezan, aurretik Ortegak (2009), Hentschkek (2009), eta Neumanek (2004), proposatutako ezaugarriei erreparatu beharko diegu eta atalez atal garatu.

Hasteko Euskal Herriko musika tresnen inguruko gaia hartu dugunez, gai honen inguruan curriculumeko zein eduki eta helburu landu ditzakegun ikusi beharko dugu. Bestetik, guk haur hezkuntzako bigarren zikloko hurrei zuzenduko diegun kontzertua denez, bai eduki aldetik, baita hizkuntza aldetik ere moldatu beharko dugu ikuskizuna.

Nori zuzendua?

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez



Kontuan hartu behar dugun lehenengo puntua entzuleen ezaugarriak dira, hau da emanaldia nori zuzendua den, horretarako; adina, musikako ezagutzak, kultura, eta jatorria, izango dira kontutan, Hala nola, malguak izan behar dugu beti, talde guztiak ezberdinak direlako haien artean. Hortaz, proiektu hau Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei zuzendua da, 3 eta 4 urte dituztenei hain zuzen ere.

Non kokatua?

Kokaleku fisikoaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan; akustika, zenbat ikusle sartu ahal izango ditugun, nola kokatuko ditugun eserlekuak (mugitzekotan), nola kokatuko diren musikari eta antzezleak edota nola egingo dugun ikusle guztiak interpretatzaileengandik ahalik hurbilen senti daitezen. Gure kasuan, haurren parte hartzea errazteko, haurrak lurrean eta apatx eserita egoteko eskatuko diegu irakasleei, honela dantzatu edo mugitu behar badira ez dugu aulkien oztoporik izanen.

Zenbat irauten du?

Kontzertuaren iraupena kontuan hartu beharreko beste atal bat da. Gomendagarriena, gehienez jota, ordu bateko luzera da (lehen hezkuntzako 2.ziklotik aurrera). 3-8 urte bitarte ez dute atentzioa 45 minutu baino gehiago mantentzen, beraz motzagoa beharko luke izan. Kasu honetan, 35-40 minutu iraungo duen kontzertua prestatuko dugu haur hezkuntzako haurren atentzioak ez baitu gehiago iraungo.

Zer joko da?

Helburu didaktikoak eta errepertorioaren eduki musikalak ere elkarri lotuta egon behar dira. Ikasleek zer ikastea nahi dugun argi eduki beharra dugu, gero errepertorio bat aukeratzerako orduan errepertorio egokia izan dadin. Erabiliko dugun errepertorioa, musika tresna bakoitzari bereziki esleitutako piezak dira. Txalapartarentzat, inprobisazio bat proposatzen dut, bat-batekotasuna txalapartaren ezaugarri nagusia bar delako. Alboka eta panderoarentzat, Leon, Maurizia, Fasio eta Basilio euskal musikari ezagunen *Porruk albokeagaz* deitutako porrusalda erabiliko dut, Alboka eta panderoaren beterano hauei ohore egin nahian . Nafarroako gaitarentzat diana bat jotzea proposatzen dut, oilarrak joko duen musika tresna delako eta dianak, oilarrak bezala, herriko jendea esnatzeko erabiltzen direlako. Trikitixa eta panderoarentzat fandangoa aukeratu dut, aurrekoan panderoak albokarekin

porrusalda egingo duelako eta honela erritmo ezberdin bat erabiliko duelako. Eta azkenik denek elkarrekin *Irrien lagunak* eta *Maite zaitut* abestiak joko dituzte, hurrek ezagutzen dituzten bi abesti direlako eta haien interesa pizteko.

Errepertorioa izango dugun publikoari begira aukeratzeaz gain, helburu jakin batzuen gainean eraiki da, eta ahal izan ezkerro haiei ezaguna izan dakiekeen piezaren bat sartzea gomendagarria da.

Helburu zehatzak eta orokorrak kontuan hartuta, baita aukeraturiko errepertorioa ere, landuko diren edukien barruan musika tresnen ezagutza landuko da. Horretarako, alboka, gaita, trikitixa, panderoa eta txalapartaren hautaketa egin dugu hau da, familia ezberdineko instrumentuak ezagutzera emateko eta ikusleak Euskal Herriko kultura musikalera hurbiltzeko.

## 5.2. Kontzertuaren helburuak:

Kontzertu didaktiko guztiek bete beharreko helburu orokorrak hurrengoak direla aipatzen du Rosa Eva García, (2005):

Ikaskuntza giro bat edota dimentsio errealeko testuinguru bat sortzen duen ikaskuntza praktikoaren bidezko estrategia bat erabiltzea.

- “Dimentsio errealeko testuinguru hezitzailea sortzen duen estrategia hezitzailea erabiltzea.
- Antolakuntzaren, didaktikaren, balioen eta jokabideen aurrean haurren jarrera erreflexiboa eta iritzi kritikoa bermatzea.
- Ikasleen esfortzua, ikasgaia eta lanbidearekin harremanetan dauden hiru ezagutzak (jarrerazkoa, prozedurazkoa eta kontzeptuala) barneratzera bideratzen duen ekintza didaktikoa planteatzea, zeina hezigarria izanda ere ebaluatzailea ere baden.”
- Ikuspegi hezigarri baten barruan ikasleak bere sormen gaitasuna eta sentsibilitate musikala erakusteko esparrua eskaintzea.” (García, 2005, 93)

Bestalde, Neumanek (2004) kontzertu batek izan behar dituen helburu zehatzak aipatzen ditu, García (2005) ez bezala beste batzuk azpimarratuz:

- “Zahar, heldu, gazte eta hurrei zuzenezko musika eskaintzea.

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

- Musika manifestatzeko modu ezberdinen gozamenean eta balorazioan laguntza bat eskaintzea.
- Entzumen ulergarria, espresio eta inteligentzia musikala eta ikusle berrien pentsamendu kritikoa garatzea.
- Kontzertuetara joateko beharra eta gogoak ikusleengan areagotzea.
- Musikaren eduki ezberdinak ezagutu eta berrezagutu.
- Musika mota ezberdinak zuzenean entzuteko arau aproposak ezagutzea.
- Ikusleei musikarien eredu desmitifikatu eta hurbilagotu bat eskaintzea.”  
(Neuman, 2005, 21)

Neumanek (2004) eta Garcíak (2005) proposatzen dituzten helburuak ezberdinak diren arren, haien artean bateragarriak direla esan daiteke, baina Garcíak helburuak alde teknikitik eraikitzen dituen bitartean, Neuman ikusleen interesetatik abiatzen da. Horregatik bion helburuak hartuko ditugu *Kontzertu Didaktikoen* helburu orokortzat.

Helburu orokor hauetaz gain, gure kontzertuak helburu zehatz batzuk izanen ditu. Helburu zehatzak guk aukeratu dugun gaiarekin zer lortu nahi dugun zehazten diguten helburuak dira. Kasu honetan gaita, alboka, txalaparta, trikitixa eta panderoarekin egingo ditugun ekintzek, helburu hauek izanen dute, gehienak helburu musikalak eta kulturalak direlarik.

Hona hemen kontzertuaren helburu zehatzak:

- *Zuzenezko musikaz gozatzea, Euskal Herriko musika tresnenak ezagutzen dituzten bitartean.* Musika tresna hauen soinuak entzun, gertutik ikusi eta ukitzeko aukera ahalbidetuko dugu.
- *Euskal musika entzun, ezagutu eta honen inguruko nolakotasunak antzematea.* Alboka, Nafar gaita, trikitixa, panderoa eta txalapartaren soinuak entzun eta euskal musikako hainbat pieza entzungo dituzte, instrumentu haiei lotuta daudenak bereziki. Pieza horiek euskal musikako pieza ezberdinak dira, porrusaldak, fandangoak, edota kalejirak. Beraz, pieza horien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak antzemateko aukera izango dute.
- *Tinbre ezberdinak antzeman eta alderatzea.* Erabiliko ditugun musika tresnak

euren artean ezberdinak dira eta haien tinbrea ere elkarrekiko ezberdina da. Horregatik, haurrei deigarriak eta bereziak irudituko zaizkiela pentsatuz aukeratu ditut musika tresna hauek.

- *Agertzen diren musika tresnak ezagutu eta berrezagutu.* Kontzertuan euskal musika tresna hauen inguruko hainbat datu interesgarri aipatuko dira eta aurretiko eta ondorengo jarduerekin hauen informazioan sakonduko da.
- *Ikusle eta antzezleen arteko harreman aproposa finkatzea.* Horretarako, aurkezleak jarrera ziurra edukiko du eta tarteka ikusleengana zuzenduko da, instrumentuen inguruko galderak eginez.
- *Musika zuzenean entzuteko arau aproposak ezagutzea.* Ikuskizuna ahalbidetuko duten arauak ezagutu behar dituzte (noiz parte hartu, noiz ez, noiz eseri edo altxatu, noiz isildu, noiz hitz egin, ...).
- *Musikarien irudi desmitifikatua eta hurbila eskaintzea.* Kontzertu Didaktiko honi esker, musikariak hurbiletik ikusi ahal izango dituzte, nola jotzen duten edota jotzeko posizioa. Narratzailearen papera hurbila izanen da eta honela helburu hau ahalbidetuko du.
- 

Kontzertuak dituen helburuez gain, Hezkuntzako curriculumak proposatzen dituen helburuak kontuan hartu behar ditugu, bestela ez baita ikaskuntza prozesuaren zati izanen, eta Hentschkek (2009) dioen bezala, Kontzertua proiektu handi baten parte bat izan behar du.

Hauek dira kontzertuarekin beteko diren curriculumaren helburuak:

- “Bere gorputza, haren elementuak eta funtzio batzuk ezagutzeko gaitasuna, jardun eta adierazteko aukerak ezagutzekoa eta keinu eta mugimenduak gero eta zehatzago koordinatu eta kontrolatzekoa.” (Foru Dekretua, 2007, 22). Gorputzak dituen ahalmenak musika tresnak jotzearekin egiaztatzen ditugu. Gorputzaren zenbait funtzio erabiliz musika tresna bati soinu atera ahal diogula erakusten diegu.
- “Beren ingurua modu aktiboan aztertu, egoera eta gertaera esanguratsu batzuei buruzko interpretazioak egin eta horiek ezagutzeko interesa izateko

gaitasuna.” (Foru Dekretua, 2007, 28). Antzerkiarekin baserriko bizimodua erakusten dugu eta baserriko animaliei gertatutako istorioa kontatzen dugu. Gertaera hauekin helburu hau betetzen da.

- “Beren esperientziatik hurbil dauden talde sozialak eta haien ezaugarri, kultur agerpen, balio eta bizimodu batzuk ezagutu eta haien aldeko konfiantzako, errespetuko eta estimuko jarrerak sortzekoa.” (Foru Dekretua, 2007, 28). Baserriko bizimodua aurkezteaz gain euskal kultura erakusten diegu hurrei eta honela haien gertuko kultura ezagutzeko aukera.
- “Gero eta modu egokiagoan eta pozgarriagoan besteekin harremanetan jarri eta jokabide sozialeko arauak pixkanaka barneratu eta beren jokabidea horietara egokitzea.” (Foru Dekretua, 2007, 28). Kontzertua ikusterakoan arau batzuk bete beharko dituzte, hala nola, isilik eta eserita egotea edota kontzertuan daudenak errespetatzea.
- “Natur ingurunearen oinarrizko osagaiak eta haien harreman eta aldaketa batzuk ezagutu eta baloratzeko, hura zaindu, errespetatu eta kontserbatzeko erantzukizuna hartzekoa, erreferentziazat hartuta Nafarroako Foru Komunitateko paisaiak.” (Foru Dekretua, 2007, 29). *Kontzertu Didaktikoko* pertsonaiak basora joaten direnean zuhaitzak, harkaitzak, landareak, harriak, eta animaliak ikusiko dituzte.
- “Hizkuntza erabiltzea ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko; ahozko hizkuntza besteekin harremanetan egon eta bizikidetzaren erregulatzeko bide gisara baloratzea.” (Foru Dekretua, 2007, 35). Irakasleak ebaluazio orriak bete ditzan, hurrei galdetuko die kontzertua zer iruditu zaien, eta horretarako hurren euren iritziak eta sentimenduak azaldu beharko dituzte.
- “Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea.” (Foru Dekretua, 2007, 35). Lehen aipatu den bezala, irakaslearekin haien iritzia eta sentimenduak azaldu beharko dituzte.
- “Beste hurren eta helduen mezuak ulertu eta hizkuntzekiko jarrera positiboa

izatea.”(Foru Dekretua, 2007, 35). Kontzertu Didaktikoan, antzezleen, narratzailearen eta aurkezlearen azalpenak egongo dira eta haurrek hauek ulertu eta hauei erantzun egin beharko diete.

### 5.3. Deskribapena

*Kontzertu Didaktikoa* aurrera ateratzeko kontuan hartu beharreko puntu hauek ikusita, antzerki baten bidez egitea pentsatu dut. Kontzertua istorio baten gaien eraikita egonen da non protagonistei gertatzen zaizkien abenturak, Euskal Herriko musika tresnekin harremanetan egongo diren.

Kontzertua istorio batean oinarrituta dago, haur hezkuntzako haurrentzat entretenigarriagoa izan dadin eta haientzat esanguratsuagoa izan dadin. Eredu moduan unibertsitatean prestatu genuen *Kontzertu Didaktikoa* dut, non protagonistari gertatzen zaizkion abenturen gainean eraiki genuen kontzertua. Emaitza positiboak lortu genituela ikusirik, antzeko lan bat egitea proposatzen dut.

Istorioaren izenburua “Behin batean, euskal musika tresnak” du izena, lehen aipatu moduan izenburu esanguratsua eta deskribatzailea izanik. Izenburu honetan “Behin batean” erabili dut, horrekin kontzertuan istorio bat gertatu edo kontatuko dela ulertzera ematen dugulako. Bestetik, izenburuan euskal musika tresnei erreferentzia egiten diet, gure kontzertuko gai nagusia direlako eta honela, izenburuarekin soilik, zerren inguruko kontzertua izango den jakingo dute ikusleek.

Jarraian kontzertuaren gidoiaren laburpena aurkeztuko dut. “Baserri batean animaliak bizi ziren: Ardia, Behia, Akerra, Oilarra, Zaldia eta Txerria. Sei lagunak elkarrekin ibiltzen ziren egun osoan, baina asko aspertzen zirenez egun batean basora joatea erabaki zuten. Han kutxa bat topatu zuten. Ireki eta hara! Euskal musika tresnak zeuden. Oso pozik, hauei soinu ateratzen saiatu ziren eta haien tinbrea, materiala eta jotzeko modua aztertu zuten. Azkenean, denek abesti batzuk jo zituzten elkarrekin eta baserrira itzuli ziren pozik instrumentuekin.”

(1 ERANSKINA)

Kontzertuaren gidioa behin eginda, behar dugun materialaren zerrendatzea eta pertsonak aurkeztea falta zaigu.

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez

### *Zer material erabiliko dugu?*

- *Musika tresnak:* Ikusleek ezagutzeko eta ipuinaren zati direlako, kutxa barruan gordeko ditugu.
- *Eszenak irudikatze:* Eszena bakoitzeko kokalekua irudikatze proiektore bat eta baserriko eta basoko irudiak erabiliko dira, hau baita modu ekologiko eta ekonomikoena. Zehazki bi eszena egongo dira, baserriko eszena, hasieran antzeztuko dena eta basoko eszena, amaiera arte iraungo duena.
- *Jantziak:* Pertsonaia bakoitzak jantzi edo mozerro bat izanen du, eta jantziak etxeko gauzeekin edo material birziklatuekin egingo dira, ekonomikoagoa izan dadin.
- *Ebaluazio materiala:* Batetik bideokamera bat erabiliko dugu, ikuskizuna eta gero guk ikusi eta gure auto-ebaluazioa egin dezagun eta bestetik, Irakasleei kontzertua hurrekin gelan komentatzeko eskatuko diegu, eta haiek inkesta bat bete dezaten eta korreoz bidali diezaguten esango diegu. Hurrek ebaluazioa egin dezaten irakasleari galdera batzuk pasako zaizkio eta berak hurren erantzunekin beteko ditu. Ondoren, bere ebaluazioarekin batera korreoz edo pertsonalki entregatuko dizkie antzezleei.
- Antzeztuko diren obren partiturak
  - Alboka, panderoa: Leon, Maurizia, Fasio eta Basilioren- porruk albokeagaz.
  - Gaita: Diana
  - Trikitixa, panderoa: Fandangoa
  - Panderoa: Kalejirako erritmoa
  - Denok batera: “Irrien lagunak” eta “Maite zaitut”
- Aulkiak, eszenatoki atzen utziko dugun arropa eta materiala bertan uzteko.
- Proiektorea eta erabiliko dugun oihala bertan proiektatzeko.

### *Nortzuk parte hartuko dute?*

- *Antzezleak*: Kasu honetan denak animaliak izanen dira, nagusia Zaldiak duelarik (aurkezlea). Hasieran “voz en off” bat (narratzailea) hasiko da istorioa kontatzen, gure pertsonaiak istorioan kokatzeko. Behin pertsonaiak kokatu direla ahots hori desagertuko da. Narratzailea
- *Ikusleak*: Haur hezkuntzako bigarren zikloko haurrak izanen dira.

#### **5.4. kontzertu aurretiko eta ondorengo jarduerak**

Kontzertu didaktikoa probetxagarria izan dadin, aurretik eta ondoren jarduera batzuk proposatzen dira, Neumanek (2004), Ortegak (2009) eta Hentschkek (2009) dioten bezala. Horretarako irakasleak bi jarduera hauek gauzatuko ditu gelan:

##### *Kontzertu aurretiko ariketa*

Irakasleak instrumentu ezberdinen argazkiak eramango ditu gelara, ikasle kopurua adina. Irakasleak instrumentu familia ezberdinak daudela azalduko die haurrei.

- Haizezkoak: Haizea erabiliz ateratzen dute soinua, gehienei putz egiten zaie.
- Sokazkoak: Sokak dituzte eta hauek pitzatuz edo igurtziz ateratzen dute soinua.
- Perkusiozkoak: Kolpatuz ateratzen dute soinu.

Familia motak aurkeztean familia bakoitzeko zenbait adibide eman behar zaie, adibideek azalpenak betetzen dituztelako.

Ondoren, irakasleak, haur bakoitzari instrumentuen argazki bana emango die eta koloretako hiru uztail jarriko ditu lurrean. Uztail bakoitzak familia bat ordezkatu du eta haur bakoitzak bere musika tresnaren argazkia dagokion uztailaren barruan sartu beharko du.

Jarduera honekin musika tresnen familia ezberdinak ezagutu eta identifikatzea lortuko da, ondoren antzezleek kontzertuan egingo duten bezala.

##### *Kontzertu ondorengo ariketa*

Kontzertua baino bi egun geroago, irakaslea kontzertuan ikusitakoaz galdezka hasiko zaie ikasleei. Irakasleak esango die ez dela ondo gogoratzen eta haiek azaldu beharko diotela zer ikusi zuten kontzertuan.

- Zein musika tresnak agertu ziren?

Hezkuntzarako proposamen baten diseinua kontzertu didaktikoaren bidez



- Eta haien soinua nolakoa zen? (intentsitatea edo imitazioa)
- Gogoratzen al zarete zein materialez zeuden eginak?
- Eta zein familietakoak ziren?

Jarduera honekin landutako edukiak zein punturaino barneratu dituzten jakin ahal izango dugu.

### 5.5. Ikasleen zein irakasleen ebaluazioa

Lehen aipatu moduan, alde batetik bideokamera bat erabiliko dugu gure ikuskizuna grabatzeko, ondoren guk ikusi eta autoebaluazio bat egin ahal izateko. Baina bestetik, ikusleen ebaluazio bat behar dugu, haien gozamina eta ezagutza direlako gure helburuak eta ez badiegu mezua ondo transmititu, hainbat gauza zuzendu beharko ditugulako.

Haur hazkuntzako haurrak direnez, ezin diegu inkesta bat pasa, baina bai haien irakasleei. Inkestak bi zati izanen ditu, batetik haurren iritziekin beteko dena eta bestetik irakaslearen iritzia bilduko dituen. Haurren zatia betetzeko, irakasleak galdera hauek planteatuko dizkie gelan eta ondoren, erantzunekin, guri bidaliko digu inkesta.

Hauek izango dira galderak:

#### *Haurrentzat*

- Gustatu al zaie kontzertua? Zer da gehien gustatu zaiena eta zer gutxien?
- Musika tresna hauek ezagutzen al zituzten lehendik?
  - Bai/Batzuk /Ez
- Zein da gehien gustatu zaien musika tresna?
- Ezagutzen al zituzten jotako pieza musikalak?
  - Bai/ Batzuk / Ez

#### *Irakaslearentzat*

- Kontzertuarekin lortu dira planteatutako helburuak?
- Zer iruditu zaizu erabilitako pieza musikalak?
- Edukiak barneratu al dituzte?
- Zer aldatuko zenuke eta zer ez kontzertutik?
- *Kontzertu Didaktiko* gehiagotara joateko asmoa duzu zure ikasleekin?

Jasotako iritziak bateratu eta ondorioak aterako ditugu honen inguruan. Beti izanen dugu hobetzeko zerbaitez, batez ere kontzertua egiten dugun lehen aldietan, baina iritziak eraikitzailetzat hartu behar ditugu eta kontzertuan hobetu ahal ditugun gauzak aldatu, beti ere, *Kontzertu Didaktikoa* gero eta osatuagoa izan dadin.

## 6. EMAITZAK

Prestatutako proiektua praktikan jarri ez denez, emaitza posibleak zeintzuk izan daitezkeen aztertuko ditut. Horretarako aurretik Kontzertu Didaktikoekin bizi izan dudana esperientzian eta beste kontzertu didaktikoen emaitzetan oinarrituko naiz.

Atera daitezkeen emaitzak asko dira, baina emaitza positibo edo negatiboak zergatik atera daitezkeen aztertuko dugu. Batetik, emaitza negatiboa atera daitekeela argi izan behar dugu eta hau gerta ez dadin kontzertuaren alor guztiak ondo lotuta izan behar ditugu.

Emaitza negatiboa ateratzearen arrazoi nagusia kontzertuak oinarri bezala dituen helburuak ez betetzea da. Lehen aipatu ditugun helburu hauek bete ez badira, atzetik dauden akatsak begiratu beharko ditugu. Akats hauek askotarikoak izan daitezke:

*Antzezleen akatsa:* Testua, musika piezak, sartu irtenak eta orokorrean ikuskizunaren antolamendua argi ez izateak, planteatutako helburuak ez betetzea ekar dezake.

*Ezusteak:* Nahi gabe gertatu daitezkeen ezbeharrek obraren ildoak apurtu dezakete, arazo teknikoak, antzezleri baten gaixotzeak edo zauritzeak edota beharrezko materialen bat ahaztu izanak, adibidez. Honelakoetan aurrera jarraitzen saiatu beharko gara, kontzertua aurrera ateraz.

*Ikusleen jarrera:* Ikusleek jarrera harkorra ez badute aurkezten, zaila izango zaigu kontzertuaren mezua helaraztea. Kasu honetan aurkezleak izan behar du esku hartze nagusia, atxikitu zaigun taldearen arabera jarrera bat edo beste aurkeztuz. Ikusten badugu ikusleek erraz galtzen dutela atenzioa, haiei atenzioa deituko dien errekurtsoak erabili beharko ditugu, soinu edo irudi kontrasteak, tarteko pasarte entretenigarriak, ...

Bestetik, emaitza positiboak lortu ditzakegu, zeinetan lortu nahi diren helburuak bete

diren eta batez ere ikusleen gozamina eta ikaskuntza ziurtatu den.

Kontzertu Didaktiko batean parte hartutako esperientzia pertsonalean ere zentratuko naiz, bertan ateratako emaitza kontuan hartzeko. Kontzertua 4 kasutan antzeztu genuen, lehen hezkuntzako ziklo bakoitzarentzat eta haur hezkuntzako 5 urtekoentzat.

Errotxapeako ikastetxean 3 aldiz antzeztu genuen, lehen hezkuntzako ziklo bakoitzeko eta Hilarion Eslaban 5 urteko eta lehen hezkuntzako haurrentzat egin genuen. Hilarion Eslaban bizitako esperientzia da kontzertu honekin kontrastatu nahi dudana, haur hezkuntzako haurrei zuzendu genielako.

Kontzertua prestatu genuenean, lehen hezkuntzako adin guztientzako kontzertua izango zela erabaki genuen, printzipioz lehen hezkuntzan egingo genuelako. Baina Hilarion Eslaban haur hezkuntzako 3. Mailako haurrentzat egin behar izan genuen.

Hasieran, haiengana nola zuzenduko ginen adostu behar izan genuen eta kontzertua haien neurrira egokitu. Egin genituen egokitzapenak txikiak izan arren esanguratsuak izan ziren, instrumentuen inguruan emango genuen informazio kopurua.

Haurrek asko disfrutatu zuten ikuskizunaz, eta ikastetxeak berak itzultzeko proposatu zigun, eta Kontzertu Didaktikoa beste ikastetxeetan egitea gomendatu ziguten. Esan dezakegu kontzertuaren emaitzak oso positiboak izan zirela eta horregatik kontzertu hau eredutzat hartu dut.

Kontzertu Didaktikoak positiboak izan daitezkeela argi gera dadin, Nafar Gobernuak azken urteotan eskoletatik zabaldu dituen kontzertu didaktikoen emaitzak aztertu daitezke eta emaitza hauek positiboak direla ere antzeman. Honen eredu dira, Pablo Sarasate goi mailako Kontserbatorioko orkestrak interpretatu dituen *Noeren Arkua* (2010) kontzertua edota *Ausarta joskina* (2009) zeinak arrakasta handia izan zuten Nafarroako eskoletan. Hauek haurren interesak aztertuz sortu diren kontzertuak dira, eta honi esker izan dute horrenbesteko arrakasta.

Gazteen artean, 2013ko apirilean eskaini zen *Human beatbox* deituriko kontzertuak izan du arrakasta, non 31 ikastetxeetatik etorritako 1400 gazte inguruk gozatu ahal izan zuten emanaldiaz.

Ikusi ditugun emaitzak ikusita, esan dezakegu, haurren interesetatik sortutako kontzertu didaktikoek arrakasta badutela eta horregatik, kontzertu honek arrakasta izanen duela suposatu dezakegu.

## CONCLUSIONES

El proyecto que he realizado, me ha sido útil para destacar e identificar los factores a tener en cuenta a la hora de hacer un *Concierto Didáctico*.

A la hora de hacer un proyecto como este, debemos tener en cuenta ciertos puntos como; los intereses de los niños, que sea un proyecto lúdico a la vez que educativo y que tenemos que diseñarlo en torno al curriculum escolar.

La falta de organización es el mayor problema que podría impedir que los objetivos del concierto se cumplieren, por ello, este tipo de actividades exigen un gran compromiso por parte de los participantes en ensayos y organización.

Al principio del trabajo se destacan unos objetivos a cumplir en el mismo. Sin embargo, los objetivos que se esperan cumplir con la realización del concierto no se pueden comprobar, ya que no se ha llevado a una práctica real. Sin embargo, los objetivos del proyecto en torno al contenido se pueden dar por logrados; darle importancia a la educación musical y enseñar el procedimiento de los *Conciertos Didácticos*.

Es la primera vez que presento un trabajo como este y no ha sido fácil. Estos trabajos exigen una gran labor para buscar información, leerla, clasificarla, contrastarla y verificarla.

El hecho de no haber realizado un trabajo como este anteriormente me ha dado dificultades, porque al principio he estado muy perdida. Pero el tener que realizar el proyecto yo sola me ha hecho poner a prueba mis competencias y eso es algo positivo a destacar. Por otra parte, he estado muy a gusto haciendo el trabajo, ya que he trabajado entorno las dos cosas que más me gustan; los niños y la música.

Aunque estos trabajos sean laboriosos, creo que merecen la pena, ya que por la experiencia que he tenido son proyectos muy agradecidos.

Lo que he aprendido personalmente con este proyecto ha sido a trabajar sola y ha sido todo un reto para mí. Ha hecho que tenga más confianza en mí y que con mis capacidades pueda realizar un proyecto.

En general me ha parecido un proyecto interesante ya que está diseñado para el sistema educativo actual y creo que en mi futuro laboral podría aplicarlo.

## ERREFERENTZIAK

- Adame Tomás, A. (2010). Metodología y organización en el aula. *Innovación y experiencias educativas*, 1-3, (26).
- Aurtenetxe Zalbidea, Auritz (2010) "Ez dok amairu" tradizioa eta modernitatea, nortasunaren bila, *Jentilbaratz: cuadernos de folklore*, 135-157 (12).
- Beltrán, J. M. (1995). Euskal soinu-tresna herrikoien zabalkundea hezkuntza sisteman. *Eusko Ikaskuntza*, 355-360.
- Beltrán, J.M. (1996). Soinutresnak euskal herri musikan. *Euskal gaiak*, 155-158, 42.
- Neuman, V. (2004). Los conciertos didácticos para escolares. *Eufonía*, 17-28, 32.
- García González, R. E. (2005). Creación de un espectáculo didáctico en magisterio. *Eufonía*, 93-101, 33.
- Harsanyi, T.:(2009) Ausarta joskina. Conciertos didácticos de Navarra. [Disponible en (05/06/2013): [http://www.cfnavarra.es/conciertosescolares/guias\\_pdf/2009-10/Ausarta%20joskina.pdf](http://www.cfnavarra.es/conciertosescolares/guias_pdf/2009-10/Ausarta%20joskina.pdf)
- Hemsey de Gainza, V. (2004).La educación musical en el siglo XX. *Revista musical chilena*,74-81, 58 (201).
- Hentschke, L. (2009). ¿Qué es un concierto didáctico? *Papeles del Festival de Música Española de Cádiz*, 41-44, 4.
- Hernandez, A.:(2010) Noeren Arkua. *Conciertos didácticos de Navarra*. [Disponible en (05/06/2013): [http://www.cfnavarra.es/conciertosescolares/guias\\_pdf/2010-11/Noeren%20arkua.pdf](http://www.cfnavarra.es/conciertosescolares/guias_pdf/2010-11/Noeren%20arkua.pdf)
- Neuman, V. (2004). La formación del profesorado y los conciertos didácticos. *Profesorado, revista de currículum y formación del profesorado*, 32, 8 (1).
- Machado de Castro, P.(2008). Pedro y el lobo de Prokofiev. *Música para todas las edades*, , 104(957).
- Ortega, M. C (2009). ¿Qué es un concierto didáctico? *Papeles del Festival de Música Española de Cádiz*, 45-55, 4.
- Perez Rodriguez, J (2003) Hacia una educación musical para el futuro: El concierto didáctico. *Leeme*, (11), 3.
- Roldán Alcázar, M. M (2010). Los conciertos didácticos para el alumnado de educación primaria. *Eduinnova*, 22, (27).

## ERANSKINA

“Baserri batean animaliak bizi ziren: Ardia, Behia, Akerra, Oilarra, Zaldia eta Txerria. Gure sei lagunak elkarrekin bizi ziren eta elkarrekin ibiltzen ziren egun osoan. Lanean aritzen ziren, Oilarrak kukurrukuka denak esnatzen zituen; ardia marraka eta akerra larrean egoten ziren goxo-goxo; behiak marru eginez, ukuiluan esnea ematen zien baserritarrei; zaldiak gurdiak atoian eramaten zituen; eta azkenik txerria lokatzen ibiltzen zen lorrinean. Oso pozik bizi ziren haien bizimodu lasaian, baserritik alde batera eta bestera.

Baina gure lagunak betiko gauzeekin aspertuta zeuden eta egun batean basora atera ziren paseoan, dibertitzeko zerbaiten bila. Han loreak, zuhaitzak, harriak eta denetarik topatu zituzten, baina azkenean hortaz ere nekatu ziren. Txerriak, bat batean kutxatxo bat ikusi zuen. Denak hurbildu ziren hor zegoena ikustera.

Hara!!! Kutxa bat, zer ote dago barruan?-esan zuen txerriak.

Kontuz, kontuz!!! Agian lehoi bat egon daiteke hor barruan, ... - ardiak orduan.

Edo krokodilo bat, ... - esan zuen akerrak.

Azkenean kutxa irekitzea lortu zuten, eta barruan zegoena begiratu zuten harriduraz.

Zer dira hauek? – esan zuen oilarrak.

Nik badakit,-zaldiak. - hauek musika tresnak dira.

Zaldiak musika tresna hauek ezagutzen ditu, berak emango ditu azalpen gehienak.

Oooh - denek harriturik- ikus ditzagun, ...

Bakoitzak instrumentu bana hartu zuen, zaldiak eta txerriak txalaparta behatzen hasi ziren, ardiak panderoa, akerrak trikitixa, oilarrak gaita eta behiak alboka. Denak liluratuta gelditu ziren musika tresna horiei begira.

Bat batean zaldiak eta txerriak oholak kolpatzen hasi ziren txalapartarekin.  
(Txalaparta pieza bat)

Nola du izena honek?- akerrak.

Txalaparta –dio zaldiak.

Zerez egin ote dago? Zerezkoa da?- Galdetzen diete ikusleei denen artean (hemen haurren parte hartzea sustatuko da).

Egurrezkoa!!!-esango dute hurrek (haien erantzunaren esperoan egongo gara, bestela animalietako batek erantzungo du).

Bai, egurrezkoa da bai, ohol hauek egurrezkoak dira eta makilak ere egurrezkoak, begira zein soinu ateratzen duten ... - txerriak (txalapartaren soinua erakutsi, frogatuz, ...).

Bai eta kolpatuz jotzen da, ... - Ardiak.

Hara .... – denak harriturik.

Oraingoan akerrak trikitixa frogatzen du.

Lagunak, begira musika tresna honi- dio akerrak.

Hori trikitixa da- dio zaldiak.

Haizea sartu eta ateratzen da, begira (hauspoa mugituz).- akerrak.

Eta botoiak sakatuz gero soinua ateratzen du.- zaldiak.

Bai, egia da, ze soinu dauka?- dio oilarrak.

Akerra trikitixa jotzen hasten da. (Tapia eta Leturiaren *Beharrezkoa*). Halako batean ardia batzen zaio panderoarekin eta elkarrekin amaitzen dute porrusalda.

Zein soinu polita ateratzen duen trikitixak ezta? (publikoari).- zaldiak.

Zerezkoa ote da, haizezkoa, perkusiozkoa edo sokazkoa? (publikoari).- txerriak.

Bai, haizezkoa da, baina ez da putz egin behar, hauspoa mugitu besterik ez.- dio akerrak.

Oooh, ...- denak trikitixari begira.

Eta beste hori? Zer da?.- oilarrak.

Panderoa.- dio zaldiak.- ardi larruz eginda dago. (Ardiak harridura aurpegia jartzen du). – Lasai ardi, jo ezazu pixka bat bere soinua entzuteko.

Bai bai, ... - denek.



Baina nola jotzen da?.- behiak.

Atzamarrekin .- zaldiak.- instrumentu hau atzamarrez kolpatu behar da. Zein familiatakoa da, haizezkoa, perkusiozkoa edo sokazkoa?

Ardiak panderoa jotzen du.

Ze soinu distiratsua!- txerriak.

Erritmo asko dauka instrumentu honek!- akerrak.

Bai, txalapartak bezala!- zaldiak.

Jo ezazu gehiago!!! Baiiii!!!- denek batera.

Ardia pozik jotzen hasten da eta halako batean behia albokarekin laguntzen hasten zaio. Animalia guztiek estaltzen dituzte belarriak.

Zein soinu da hori? Nondik dator?- denek.

Hori alboka da lagunak, behi adarrez egina dago!!!-zaldiak.

Oooh!!!- denek harrituta begiratzen diote albokari, soinu berezi horrek liluratuta uzten ditu.

Begira lagunak, bi hodi ditu albokak, batetik soinu bat ateratzen da eta bestetik beste bat!!!- Behiak.

Egia da, hodiak egurrez eginak daude.- dio zaldiak.- eta albo bakoitzean adarrak ditu. Batetik putz egin ezker, haizea hodiedatik pasa eta beste aldetik aterako da.

Egia da, beraz, instrumentu hau haizezkoa, sokazkoa edo perkusiozkoa al da? (Ikusleei galdezka)

Haizezkoa da noski, trikitixa bezala.

Bat batean denek oilarrari begiratzen diote, oilarrak ez baitzuen bere instrumentua frogatu, eta negarrez ari zen.

Zer duzu oilartxo?- Esaten dio akerrak.- Triste al zaude?

Bai- oilarrak zotinka- denek soinu atera diozue zuen instrumentuei baina nik ezin izan diot soinurik atera nireari, oso zaila da eta.

Zaude lasai oilar, Nafar gaita jotzea ez baita gauza makala.- erantzuten dio zaldiak.-

Mokoa ondo estutu eta haize asko hartu behar duzu. Saiatu orain.

Oilarra bere gogo guztiekin saiatu egiten da, baina ezin du. Zaldiak, beraz, oilarrari animoak emateko eskatzen die ikusleei ea honela lortzen duen.

Animo oilar!!! Animo, zuk lortuko duzu!!! – denek.

Eta halako batean, lortu egiten du. Soinua ateratzen zaio, albokarena baino zorrotzagoa oraindik. Denak barrez hasten dira.

Zergatik egiten duzue barre? – oilarrak harriturik.

Kilimak egiten dizkigulako belarrietan soinu horrek, kar, kar, kar, ...- ardiak.

Haizezkoa, perkusiozkoa edo sokazkoa al da?- zaldiak ikusleei.- haizezkoa da bai, putz eginez ateratzen delako soinua. Eta zenbat zulo ditu? Zenbatuko al ditugu?  
1, 2, 3,...8!!! 8 zulo ditu!!!

Zerez egina dago? – txerriak ikusleei- bai, egurrez eta zilarrez dago egina.

Jo ezazu zerbait, Berriz entzun nahi dugu soinu hori!- akerrak

Oilarrak diana bat jotzen du gaitaz.

Uste dut, gaurtik aurrera jendea kukurrukuka ordez, gaita jotzen esnatuko dudala.- oilarrak- badirudi soinu hau gehiago gustatzen zaiola jendeari.

Bai, oso ideia ona da. –ardiak.

Zergatik ez dugu elkarrekin zerbait jotzen?- akerrak.

Bai oso ideia ona da! Euskal dantza joko dugu!!! – txerriak.

Baiiii!!!- denek ados.

Baina Euskal dantza ez da euskal dantza izanen dantzariak ez baditugu, dantzatuko al duzue zuek? – zaldiak ikusleei begira- bai? Ba goazen lagunak.

(Euskal dantza)

Pieza jo eta gero.

Oso ondo pasa dugu, baina baserrira itzuli behar dugu.- behiak.

Bai, arrazoi duzu, zergatik ez goaz jotzen dugun bitartean?

Bai oso ondo.

“Irrien lagunak” abestia joko al dugu?- txerriak.

Bai, zergatik ez.- zaldiak- goazen ba lagunak.

Kalejira txiki bat eginez “Irrien lagunak” abestiarekin eszenatokitik alde egingen dute animaliek, ikuskizunari amaiera emanez.”